

4. kasu praktikoa

X (5.000 €ko ekarpenarekin), Y (10.000 €) eta Z (20.000 €) anaiak baltzu baten bazkide eta administratzaileak dira. Baltzu orain dela 10 urte eratu zuten hiruren artean erantzukizun mugatuko baltzu bezala. Estatutoetan, 10. Artikuloan, esaten da partizipazioak eskualdatzeko batzarraren baimena beharko dela.

Egun batean Xk erabakitzen du baltzua uztea eta ameriketara joatea banandu egin baita. Bere bi anaiekin adosten du bere partizipazioak Zri ematea baina honek bere semeak 18 urte betetzen dituenean transmitituko dizkiolako konpromisoarekin. Notarioaren aurrean formalizatzen dute akordio hau. Notarioaren aurrean baita Yk eta Zk onartzen dute batzarrean transmisioaren alde bozkatea Xren semeak 18 urte betetzen dituenean, hau bazkide egiteko. Batzarrak onartzen du aho batez Xk Zri eginiko transmisioa.

Hiru urte beranduago Ak, Xren semeak, 18 urte egiten dituenean konpromisoaren betetzea galdatzen du eta bere osabei batzar bat egitea eskatzen die non onartuko den transmisioa. Zk egiten du deialdia eta batzarra ospatzen da, baina berak transmisioaren kontra bozkutzen du bere harremanak Xren familiarekin okertu direlako. Yk alde bozkutzen du, baina akordioa kontrakoa da.

Ak uste du batzarraren akordioa ez dela beharrezkoa notarioaren aurrean jaso delako transmisioaren aldeko konpromisoa, ala eta guztiz ere eskatzen dio bere osaba Zri berrio deitzeko batzarra eta alde bozkatzeko, bere aitaren nahia betetzeko.

Y ere ez dago batere konforme gertatutakoarekin eta jakin nahi du ea berak zerbait egin dezaken bere anaia Xren borondatea betetzeko.

Uste duzu A partizipazioen jabea dela nahiz eta transmisioaren aldeko akordiorik ez egon? Zer egin dezake Yk bere anaia Xren borondatea betetzeko?